

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza <sup>info</sup>

Ostirala, 2011ko uztailearen 22a. VIII. urtea. 2.262. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

## Igandean lehertuko da aurtengo Santio jaiei hasiera emango dien suzeria

12:00etan emango diote hasiera santioei eta astebetean luzatuko dira; osteguna atsedean eguna izango duten arren jai girorik ez da faltako Villabonako kaleetan

Aurtengo txupinazoa botatzeko ardura Etxerat elkarteko kideek izango dute; euskal presoan senitarteko txikienek izango dira jaien hasierako protagonista nagusiak **04-5**

### Tolosaldea 2.479 bisitarik ezagutu dute uztaileko lehen asteetan

Tolosaldea Garatzeneko Turismo saileko arduraduna, Olatz Ilarregi, «oso gustura» dago orain arteko datuekin **03**



Olatz Ilarregi, Tolosaldean Garatzeneko turismo arduraduna. A. MAZ



→ **'Kolorearen poza' ikusgai.** Menchu Gal artista irundarraren 44 koadroz osatutako erakusketa ibiltaria Aranburu jauregira iritsi da. Estatu mailan nahiz nazioartean izen handiko margolaria izatera iritsi zen Menchu Gal; bere obraren ibilbidea islatzen duen erakusketa, irailaren 10era bitarte izango da Tolosan. **02**



# Menchu Gal irundarraren 44 koadro ikusgai izango dira irailera bitarte Aranburun



Irungo artistaren 44 lan ikusi ahal izango dira Aranburu jauregian. HITZA

Iberiar penintsulan barrena antolatutako erakusketa ibiltari baten hirugarren geldialdia da Tolosakoa

## I. Urkizu Tolosa

*Menchu Gal, kolorearen poza* erakusketa pasa den asteazkenean zabaldu zituen ateak. Irailaren 10a bitarte, ikusgai izango da Aranburu jauregian.

Erakusketa Menchu Gal Fundazioak antolatu du, Tolosako Udalarekin eta Kutxarekin elkarlanean. 2008an zendu zen artista irundarraren ibilbidea laburbiltzen duten 44 olio, pintura eta marrazki ikusi ahal izango dira. Aurkezpen ekitaldian, Ibai Iriarte Tolosako alkatea, Jose Juan Gonzalez de Txabarri Menchu Gal Fundazioari idazkari nagusia, eta Menchu Gal Fundazioaren erakusketetako komisarioa den

## Iragarki laburrak

### GALDUTAKOAK

■ **Diru zorroa.** Diru zorro bat aurkitu dute Amezetan. Galdu duenak dei dezala 615 97 95 66 telefono zenbakira (Kontxu).

### SALGAI

■ **Adosatua.** Tolosan. Eguzkitua. 4 logela, 2 bainugela, komuna, egongela-jangela handia, sukaldea, 2 autorentzako garajea, txokoa, jardina eta trastelekua. Deitu 678 26 76 57ra.

ra, Espainia mailako kritikan erreferentzia bilakatu diren Francisco Calvo eta Edorta Kortadiren hitzak ere irakurgai izango dira. Era berean, Menchu Galen hilobak ere parte hartu du lanean. Guztira koloretako 100 irudik osatzen dute liburua.

### 70 urteko lana

Menchu Gal Irunen jaio zen 1918an, eta Donostian hil zen, 2008an. 13 urte zituela, bere herriko egunkari bateko irakurleen arreta piztu zuen, margotzeko bere gaitasuna zela eta.

Segituan joan zen Parisera, eta bertan ikasi zituen pinturaren munduko nondik norakoak. Bere heziketan, hainbat korronte artistikoren eragina jaso zuen: realismoa, impresionismoa, postimpresionismoa, kubismoa, fauvismoa eta espresionismoa. Joera hauek guztiak bere lanetan nahastu zituen arren, Menchu Galkoloreari garrantzia berezia eman zion. Bide horretan, 1960ko hamarkadan hasi zen bere ibilbideko garairik oparoenan.

Erakusketeki dagokienez, 1931 eta 2008 artean, bakarkako 70 erakusketa egin zituen, eta taldekako 232tan parte hartu zuen. Era beran, hainbat sari jaso zituen bere lanagatik; besteak beste, 1959an eman zioten Pinturaren Sari Nazionala.

### Bere obra, mundu osoan

Espainiako estatutako nahiz nazioarteko hainbat museotan Menchu Gal irundarraren lanak dira ikusgai.

Nabarmenenak aipatzearen: Bartzelonako Museo D' Art Contemporani, Madrilgo Centro Nacional de Arte Reina Sofia, Bilboko Museo de Bellas Artes, Donostiako San Telmo museoa, Buenos Aireseko Museo Nacional de Bellas Artes, Osloko Museet For Samtidskunt eta Kubako Museo Nacional de Bellas Artes.

# Emakumea lan munduan sartzeko akordioa sinatu dute

Irailetik aurrera, Konfia enpresak bere egoitza izango du Tolosan, herriko kasuak gertutik jarraitzeko

## I. Urkizu Tolosa

Emakumeek euren lana eta bizitza pertsonala uztartzeko lan egiten duen Konfia enpresak eta Tolosako Udalak hitzarmena sinatu dute. Akordio honen arabera, udalaren jabetzakoa den lokal bat erabiltzeko eskubidea izango du, bost urtetan zehar, Konfia Bategarritasun Zerbitzuak enpresak.

Ibai Iriarte alkatea eta Maria teresa Hernandez Konfia-ko kudeatzaileak sinaturiko hitzarmenari esker, enpresak Tolosako errealitatea «gertutik» ezagutzeko aukera izango du, udalaren lokala egoitza moduan hartuko baitute. Horrela, kontraturik gabe eta egoera txarrean lanean ari diren hainbat emakume tolosar kontratatu ahal izango dituzte, Tolosako Udaleko gizarte zerbitzuekin harremanetan jarritz.

Bereziki, Konfia-k akordioaren bidez, guraso bakarreko familietako emakumeak edo genero indarkeria jasan dutenak lan munduan txertatzea lortu nahi du. Bide honetan, Tolosako hainbat

agenteren laguntza izango du enpresak: Gizarte zerbitzuak, Lanbide, Tolosako herria eta enpresaren sareak.

Konfia-k bere helburuak lortzeko lan dinamika bat jarraituko du. Lehenik eta behin, Tolosako Gizarte zerbitzuetako ordezkariek, Lanbideko arduradunekin batera, Konfia-ren aktibitatearen profila egokitzen diren, eta txertatze konbenioa sinatu duten emakumeen izenak emango dizkiete enpresako langileei. Zerrendako emakume bakoitzaren egoera banan-banan aztertu ondoren, Konfia-k formazio jakin bat eskainiko dio emakume bakoitzari, eta lan eskaintza egokiak bilatzen saiatu ondoren, ohiko lan merkatuan sartzeari izango da Konfia-ren azken lana.

### Lau esparrutan lanean

Konfia enpresak lau esparru nagusitan lan egiten du: haurrentzako zerbitzuetan, garbiketetan, hirugarren adinekoentzako arreta zerbitzuan eta espreszentzako bateragarritasunean.

Enpresari buruzko informazio gehiago [www.konfia.net](http://www.konfia.net) webgunean, edo 943 36 85 61 telefonoan eskura daiteke. Hala ere, irailetik aurrera, Nafarroa etorbideko 6-3 zenbakian (Correos-eko eraikinean) izango da enpresaren egoitza berria.



Udal ordezkariek Konfiako ordezkariekin hitzarmena sinatzen. HITZA

# Irati Mujika amezketarra aske geratuko da gaur


10.000 euroko bermea ordainduta irtengo da kartzelatik, ia bi urte barruan pasa ondoren

## I. Urkizu Amezketa

Irati Mujika amezketarra gaur geratuko da aske, 10.000 euroko bermea ordaindu ondoren.

2008ko azaroaren 11n atxilotu zuten lehenengoz Iruñean, Fernando Grande-Marlaska epailearen aginduz. Segiko kide izatea leporatu zieten hiru atxilotuei. 2009ko azaroan, gazte mugimenduen aurka egindako sarekadan atxilotu zuten, beste 33 gazte-ekin batera.

Soto del Realen egon zen lehenik, eta 2009ko abenduaren 1az geroztik, Brievako espetxean egon da.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

# Tolosaldean turismoa %41 igo da uztailera lehen 20 egunetan

Larraulgo Ekomuseoa abuztuko asteburu eta jaiegunetan zabalduko dute; elizako grisaila ere bisitatu ahalko da

## Asier Imaz

Tolosaldea Garatzenen Turismo sailak bildu dituen datuen arabera, eskualdean 2.479 bisitari izan dira uztailera. Iaz, denbora tarte berean, 1.753 kontaktu zituzten, hau da, %41,41 gutxiago.

Gorakada honen arrazoiak Euskadiko datuen babesean kokatu ditu Olatz Ilarregik, Tolosaldea Garatzeneko Turismo sailaren arduradunak: «Joera orokorra da; Euskadi mailako datuek ere bilakaera hori erakusten dute, eta datuak onak dira. Gipuzkoan ere berdin, eta ondorioz, eskualdean ere nabarmena da hobeakunza».

Tolosan bisitariari zuzendutako bi informazio puntu aurkitzen dira: udaletxe atzeko bulegoa eta Trianguloan dagoen etxetxea. Iaz, eskualdeko hirugarren puntu zabaldu zuten Larraitzen: Txindokiko Itzala. Ilarregiren esanetan, gune hauetan «promozio eta aktibitate aldetik lan asko egiten ari dira», eta horrek, Tolosaldea «erakargarriago» egiten du. Ordainetan, «emaitza onak» lortzen ari direla uste du.

Aiztondo bailaran Larraulgo Ekomuseoa azpimarratzen du Olatz Ilarregik: «Informazio bulegorik ez dago, baina Ekomuseoa aurkitzen da Aiztondo bailaran. Baserritarren bizimodua, lanabesak... Egun, zazpi herritarrek osatutako DINA7 kultur elkarteak kudeatzen ditu bertako museoa eta tailerrak. Hilean behin irekitzen dute, baina orain, enplegu

programa batekin lantalde bat sortu dugu pertsona bat kontratatzeko. DINA7-koekin hitz egingen egon gara, eta abuztuko asteburuetan eta jaiegunetan Ekomuseoa irekitzeko adostasun batera iritsi gara». Larraulgo museoa ikusteaz gain, elizan aurkitzen den grisaila berezia ikusteko aukera ere egongo da.

## Tolosaldea erakarri

Bisitariaren datuak emankorrak baldin badira ere, hauek sortzen dituzten etekin ekonomikoak ez dira horrenbestekoak. Udari dagokionez, Tolosaldea Garatzeneko turismo arduradunak ez ditu datu zehatzak bildu oraindik, hala eta guztiz ere, Olatz Ilarregik susmo bat dauka: «Bisitariaren kontsumoaren daturik ez dugu oraindik, baina enprekin hitz egin ondoren, susmo bat badugu. Bisitariak etorri etortzen dira, baina gastua neurtuagoa da. Jendeak ez du etxean gelditu nahi, baina egun pasa etortzen dena adibidez, agian ogitartekoarekin etortzen da. Aste Santuetan neurketa egin genuen, eta okupazio mailan lortu genituen emaitzak ez ziren kontsumo arloan islatzen. Gure erronka hor dagoela uste dut».

Tolosaldea Garatzenen helburuetako bat, eskualdearen garapen ekonomikoa bultzatzea da. Erronka horri aurre egiteko, Ilarregiren ustez «eskualdea saltzen» jarraitu behar dute. Turismo sailetik promozioak, mapak, ibilbideak, dinamizazioa eta abar lantzen dituzte helburu horrekin. Mendi bizikletaren inguruan ere, proiektu berri bat gauzatu nahian dabilza: BTT zentroa. Ilarregiren ustez, «azkenean garrantzitsuena, zer eskainia edukitzea da».

Zenbakiak eskuan hartuta, oro



Olatz Ilarregi, Tolosaldea Garatzeneko Turismo sailako arduraduna Tolosaldeko informazio bulegoan. A. IMAZ

har, «gustura» dago Tolosaldea Garatzeneko turismo arduraduna. Goi denboraldiaren hasiera uztailaren 18an kokatu zuten, eta irailaren 2ra arte luzatuko dute. Olatz Ilarregiren ustez, uda «oso ona» izango da.

Emaitzetan eragin dezakeen faktore bat, eguraldia izango da. Turismo arduradunak garrantzi handia ematen dio goitik etor litekeenari: «Eguraldia izugarriko eragina dauka gure kasuan. Guretzat eguraldi onegia ere ez da ona, jendeak hondartzarako bidea hartzen baitu. Zeruak laino punttu bat izatea hobe da guretzat».

Eskualdera etortzen denak zer aurkituko duen galdetuta, produktua izarren zerrenda egiten digu Ilarregik: «Alde batetik, Tolosa bera dago, eskualdeko hiri-burua delako eta bertan dituen zerbitzuengatik; Topic, Gorrotxategi museoa, Alde Zaharra bera eta larunbateroko azoka aipatuko nituzke. Bestalde, natura gus-tuko duenak, puntu nagusi bezala Aralarako sarrera dauka, Larraitzen».

Kanpotik datozenek edo bertakoek, informazio gehiago nahi izanez gero, Tolosan eta Larraitzen aurkituko dituzte horretarako egokiturik dauden bulegoak, eskualdea hobeki ezagutzeko.

## ↓ Datuak, uztaila 1etik 20ra

Jatorria	Bisitariak 2010	Bisitariak 2011	% diferentzia
Tolosaldea	535	310	-42,06
Araba	24	21	-12,50
Gipuzkoa	462	1082	134,20
Bizkaia	136	267	96,32
Nafarroa	5	28	460
Katalunia	86	172	100
Madrid	66	81	22,73
Andaluzia	22	44	100
Aragoi	31	33	6,45
Gaztela	29	29	
Gaztela Mantxa	12	21	75
Valentzia	40	41	2,5
Kanariar Uharteak	7	9	2,5
Errioxa		5	
Murtzia	2	20	900
Alemania	4	23	475
Argentina	13	12	-7,69
Australia	5	3	-40
Brasil	1		-100
Belgika	17	16	-5,88
Txile	3	3	
Frantzia	85	71	-16,47
Holanda	12	16	33,33
Japonia	3	4	33,33
Mexiko	3	6	100
Zelanda Berria		8	
Ingalaterra	8	22	175
EEOB-Kanada	10	12	20
<b>Guztira</b>	<b>1753</b>	<b>2479</b>	<b>41,41</b>

**Artisau Jogurtak**

**Mahala**

**MIGUEL-MARU**

**FRUTATEGIA**

**Santioak ondo pasa!**

Kale Berria, 13 • BILLABONA  
943 69 21 50

**ALBIZU** **KIROLAK**

Nagusia, 2 • Billabona  
Tel.: 943 69 31 31  
faxa: 943 69 31 31

**BRONTXILLO** Harategia • Itsaskide

943 69 68 23  
Santio kalea, 4  
- Villabona -

**Santioak ondo pasa!**

**Itzalpe**  
Ekaritegia Intereza

**Festak ondo pasa!**

Berria, 29 • Billabona • Tel. 943 69 06 23

# Erroskila erre bitartean, Santio



Igandean hasi eta astebez jai giroa eta festa izango da nagusi Villabonako kaleetan; osteguna atsedeen eguna izango dute

Haurrek, gazteak eta helduek, egitarau oparora dute gustukoak aukeratzeko

**Enertiz Maiz** Villabona

Villabonako Santio jaiak badatozela ingurartean, Gortxo etorriko da larunbatean. Igande eguerdian berri, zuziria lehortzearen batura jai hasiera emango

dieta bilabonatarrek. Egitarau oparora bezain zahala prestatu du udalak, adin guztietako herritarrei zela ingurartean. Gortxo etorriko da larunbatean. Igande eguerdian berri, zuziria lehortzearen batura jai hasiera emango

Osteguna atsedeen eguna izango da, baita kirolak ez du hutsik egongo egun horretan. Beste egun guztietan ere, kirol ezberdinez gozatzeko aukera izango da pilotan, saskibaloian, erreboteak, herri krosta, giza proba...

**Taldeenartez, Irrien lagunak** jaietan haurrak beti izaten dute aukera, eta Villabonako jaietan aukera handia dute ongi pasatzeko. Jolas ugari izango dituzte: apar festa, era ezberdinetako talerrak, euskarakea, pallazoak... Hain matxak dituzten Irrien lagunak ere izango dituzte.

## Ane Aiestaran • Etxerat Elkartea

Igande eguerdian Etxerako kideek jaurtiko dute zuziria, astebeteko festei hasiera emanez. Familiako txikiak izango dira protagonista.

## «Festetan ere denok ez gaudela aldarrikatuko dugu»

**E. Maiz** Villabona  
Etxerat Elkartean egokitu zaito igandean hasiko diren Santio jaiak hasiera emateko zuziria botatzeko. Ane Aiestaran bertako kidea da, eta presoen familia guztietako ordezkariak botako dute.

Horrela, eta besteak beste, Pello, Oskar, Manek, Julen, Jose Mari, Inigo, Eneko, Emilio, Lander eta Karlos txupinazioaren egotes lortu ko dute. **Txupinazioa botatzeko andara izango dute aurten. Nola jaso zeruten berria?**

Festa batzordearen atena omen zen ideia, eta bertan arazorik gabe onartu ostean, guri komentatu zituzten. Buzioa sortu zigan, gutuz, eta gure senide eta lagunak orotzeki. Festetako lehen egunetan parte hartzeko aukera izateko ilusio handia sorrarazi zigan. Era

berrean babesa jaso dugu, eta elkartasun keitua bat izan da. **Zer esatuko duzu herrietan?** Festa hasietan ere, jende guztiak, egunero, gure artean ez dauden gure senide eta lagunak presenten edukitzea nahiko genitueke. Paganak direla edo zapiak direla, berriak gure artean espago balira bezala sentitzen. Eta ahal bada, berari postetan bidali edo berriak gogoratzen gurela beharrezko eskatuko genitueke. **Ure zailak bizitzea egokitu zaizu.** Egia da egoera zailak bizitzea egokitu zaigula, baina herri mailan babesa handia sentitu dugu. **Egoera politikoa berri baten aurrean gaudu. Itxaropentsuz gaudu?** Itxaropentsu gaudu, baina hankak lurrutan ditugu. Pausu handiak daude emateko, eta denbora behar da.

**villabona** optika  
Ordo pasa Santioak!  
www.villabonaoptika.com  
Kale Berria 23 • Villabona • Tel.: 943 111 840

**SANTIO TAN ZUREKIN BATI!**  
LIMPIOTIKIA  
Egoera politikoa berri baten aurrean gaudu. Itxaropentsuz gaudu?

**Villabonako Jubilatuen Taberna**  
Heriotz guztiztatuz zabalik 10:00etatik 22:30era.  
Bokatak, raziolak, plater konbinatuak eta menuak eskaintzen dizkugu.  
Zuen bitartean zain gaudu. Eskerrik gairi!  
Aldude kalea 3 beheko • Villabona • Tel.: 943-69 49 19

## ↓ Villabonako Santio Jaietako egitaraua

### UZTAILAK 24, IGANDEA

- 12:00. Txupinazioa Etxerat Elkartean eskutik, eta Loatzo Musikako eskolako trikitilariak alaituta.
- 12:30. Erraldoi eta buruhandik, Loatzo Musikako eskolako trikitilariak lagunduta.
- 15:00. Joki Garbi Errebote plazan.
- 16:00. Baskaria Herrikoa Errebote plazan.
- 16:30. Seirgrafia tallera Errebote plazan.
- 17:30. Zozogorekin batukada Errebote plazatik.
- 17:30. Sarda erakustaldia Malkar plazan.
- 17:30. Frontenisa herriko txapelketaren finala.
- 18:30. Pilotari eskuz binakako herriko txapelketaren finala.
- 19:30. Futbito finala Errebote plazan.
- 23:00. Danborrada Musika eskolatik iraukorra txarangak lagunduta.
- 00:00. Dantzialdia Errebote plazan Trikidantz taldearekin.

### UZTAILAK 25, ASTELEHENA

- 08:00. Diana kaleja, herriko dultzamerokin.
- 09:00. Sokamuturra Herriko dultzamerok alaituta, Olaendera irakolagarekin ondoan.
- 10:30. XXII Herri Krosta, Aitzin plazatik.
- 12:30. Haurrentzako jolasak eta talerrak, Malkar plazan; harkapaloa eta sorkuntza talerrik, Korri, Xaito eta Brinko.
- 12:30. Udal korporazioaren urtereko bisita, Santiago egotzara, Loatzo Musikako eskolakoekin.
- 13:00. Isidoro Larruhaga akordeo orkestraren emanaldia, Errebote plazan.
- 17:30. 3x3 Saskibaloia kale Berrian.
- 18:00. Erraldoi eta buruhandik, Loatzo Musikako eskolako trikitilariak lagunduta.
- 18:45. Atari bati sari banaketa, Errebote plazan.
- 19:00. Soka dantza, Errebote plazan Oinkari dantza taldearen eskutik, udal korporazioaren parte hartzearekin.
- 22:00. Erresagi abesbatzaren emanaldia Gurea zineman.
- 00:00. Dantzialdia Errebote plazan Laiotz taldearekin.

### UZTAILAK 26, ASTEARTEA

- 08:00. Diana kaleja, herriko dultzamerokin.
- 11:00. Bitoki Jubilatuz taldeak eta Santiago egotzako altonamonek egindako eskulanean erakuseta, Berdura plazan.
- 11:30. Villabonako errebote txapelketaren finala.
- 12:00. Haurrentzako jolasak eta talerrak; jolas emanaldia, errebote plazatik eta txupinazioa.

### UZTAILAK 29, OSTIRALA

- Kuadrilla eguna
- 14:30. Kuadrillen baskaria Etxeretan. Ondoren kaleja In-cansables txarangarekin.
- 20:00. Dantzialdia Errebote plazan, Triki Ta Ke taldearekin.
- 00:00. Zezen Suzkoa Errebote plazan.

### UZTAILAK 30, LARUNBATA

- 16:00. Mus Txapelketa Berdura plazan.
- 17:00. Erraldoi eta buruhandik, Loatzo Musikako eskolako trikitilariak lagunduta.
- 18:30. Euskarakea haurrentzako Amion.
- 19:30. Bakarrizketa, King-Kongren neska Errebote plazan.
- 20:30. Disko festa Errebote plazan Oihan Vegarekin.
- 22:00. Oinkari Dantza eskolaren emanaldia, Olaendera irakolagarekin.
- 00:00. Disko festa Errebote plazan, Oihan Vegarekin.

### UZTAILAK 27, ASTEZKENA

- 10:30. Haurrentzako talerrik, 11:00. Eskulanean erakuseta, Gurea Zinema kanpooan.
- 12:00. Kuadrillen arteko baltsa jaietara udalberri atzetik Zubimurra.
- 14:00. Baskaria, Berdura plazan.
- 16:30. Txirindulari lasterketa Herrikoa.
- 17:00. Oriesta Nacional taldearekin porteo kaleja.
- 17:00. Haur talerrian egindako auto berriaren erakustaldia kalean.
- 17:30. Pallazoak: Arroako plazan, Entinasko taldearen eskutik, Korri, Xaito eta Brinko.
- 19:00. Herriko dultzamerokin, Loatzo Musikako eskolako trikitilariak lagunduta.
- 21:30. Bokata aforia, Errebote plazan.
- 23:00. Kontzertu Gaua, Errebote plazan, Canteca de Macao 121 Krew eta Jostion taldeekin.

### UZTAILAK 28, OSTEGUNA

- Atsedeen eguna
- 18:00. Pilotari eskuz binakako afitzionarioen finala, Bearzana pilotalekuan.
- 22:00. Jubilatuztaldeak eta ikore dastaketa, bitoki berriaren muskaz alaiturik.

### UZTAILAK 29, OSTIRALA

- Kuadrilla eguna
- 14:30. Kuadrillen baskaria Etxeretan. Ondoren kaleja In-cansables txarangarekin.
- 20:00. Dantzialdia Errebote plazan, Triki Ta Ke taldearekin.
- 00:00. Zezen Suzkoa Errebote plazan.

### UZTAILAK 29, OSTIRALA

- 00:00. Dantzialdia Errebote plazan, Triki Ta Ke taldearekin.

**Santioak ondo pasa!**  
• ILEAPANDEGIA - ESTETIKA - Errola 1 beheko esk. VILLABONA Tel.: 943 696 292

**EIZMENDI ARMATEGIA • BIRLODENDA**  
• Kirol goiak konpontzeko lantegia  
• Aukera handia eskopeto eta karfutotan  
ONDO PASA JAIEGAN!  
Berrn, 19 • Billabona • Tel.: 943 69 26 23 • Faxo: 943 69 30 44

**Kale Nagusia 45 Villabona**  
Tel.: 943 247 469  
Jai zoriontsuak pasa!

**Kale Berria, 15 - Villabona • Tel.: 943 69 09 41**

**Villabonako festetan ere zuekin!**  
943 69 40 01 Erniobera, 19 Villabona

# «Helburua ohorezko txandan mantentzea da»

Astillero traineruan daude Anjel Larrañaga eta Ugaitz Mendizabal; ACTko lider izan dira asteburu batez

**Imanol Garcia**

Arraunaren goi mailan daude eskualdeko bi lagun, Kantabriako Astillero traineruan: Ugaitz Mendizabal patroia anoetarra eta Anjel Larrañaga bigarren entrenatzaile tolosarra. Biek oso garbi dute traineruaren helburua: «Ohorezko txanda mantentzea». Hau da, ligaren lehenengo lau sailkatuen artean egotea. «Txanda horretan irabazten dira bandera gehienak», dio Larrañagak. Asteburu honetako bi estropadetatik bat Portugaleten jokatu behar dute. «Jaz bandera eskuratu genuen», gogora ekartzen du bigarren entrenatzaileak. «Ea aurtun ere lortzen dugun».

Aurreko asteburuan emaitzek ez zuten lagundu eta, egun, ACT Ligako hirugarren postuan daude. Baina orain bi asteburu ligaren aurreko postua eskuratu zuten Opirata.com Banderan eta Mendizabalek maillot horia jantzi zuten. Une berezia izan zen patroigaztearentzat: «Asteburu ona egitera joan ginen eta oso ondo atera zizaitzaing, lider eta guzti atera ginen. Inork ez zuen espero. Lehenengo postuan Kaiku edo Urdaibai egongo zirela pentsatzen genuen. Azkenean, bi punturengatik, gu jarri ginen lehenengo postuan». Larrañagak gaineratu duenez, «ez ginen horren bila joan, eta sari polita izan zen guretzat».

Sailkapenaren aurreko postuetan izan arren, oraindik ez dute aurtengo denboraldian banderarik lortu. Horrelako lorpenik ez dute baztertzeko, ezta liga bera irabazte ere. «Gure maila emaitzen badugu eta ez badugu zorte txarrik izaten, gerra emateko moduan izango gara», dio prestatzaile tolosarrak.



Anjel Larrañaga eta Ugaitz Mendizabal, Astillero elastoarekin. I. GARCIA

Aurreko asteburuan ez zuten zorterik izan kaleen zozketarekin. Larrañagak dioenez, «kaleen zozketak markatu zituen aldeak, eta aurkari ezin zaie ezer oparitu». Marina Cudeyo Banderan, larunbatean, eta Santanderren, igandean, seigarren postua eskuratu zuten. «Puntu asko utzi ditugu atzean, baina estropada oso onak izan ziren, gure aldetik akats batzuk egin arren», dio Larrañagak. «Estropada oso gogorak izan ziren bai haizearengatik eta baita korranteengatik ere».

«Aurreko asteburuan bi estropadetan ohorezko txandetatik atera ginen, baina hirugarren postuan gaude sailkapenean», dio Astillero patroiak. Urdaibaik zazpi puntu ateratzen dizkie eta Kaikuk lau.

Estropada gehiagotan parte hartu nahi du Mendizabalek, batez ere itsasoan: «Ni arinagoa naiz beste patroia baino, eta erreketan izaten diren estropadetan nik hartzen dut parte. Ea itsasoan diren ere jartzen nauen entrenatzaileak». Jon Salsamendi orotarra da entrenatzailea.

Maila profesionalen aritzea «gogorra» dela dio Mendizabalek. «Egunero aritu behar zara entrenatzen», esan du. «Oso serio aritu behar zara. Maila horretan edozein gauza gaizki egingez gero, nabarmen geratzen zara».

# Izena eman daiteke helduen eta eskola kanpoko ikastaroetan

Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak hainbat ikastaro proposatzen ditu Adunan eta Larraulen

deitu edo liburutegira azaldu behar da. Epea aurrekoen berdina da: hilaren 26a. Taldea osatzeko gutxieneko kopurua 8-10 lagunekoa izango da.

## Proposamen ugari

Larraulen helduentzako hainbat ikastaro proposatzen dituzte: zure seme-alabarekin janaria prestatu ezazu, eskulanak, barretaria, memoria suspertzeko tailerra, etxeko konponketak, areto dantzak, pilates, euskal dantzak, ardo dastaketa, eta argazki eta ordenagailu bidezko ukitua eta DVD baten eraketa. Taldea osatzeko gutxieneko kopurua 10 lagun ingurukoa izango da.

Eskola kanpoko ikastaroegi dagokionez, bost aurreikusten dituzte: euskal dantzak, antzerkia, pilota, kirola ezagutzeko eta perkusioa. Taldea osatzeko gutxieneko kopurua ere zehaztuta dago ikastaro hauetan: 8-10 lagun inguru.

Bai helduentzako bai eskola kanpoko ikastaroetan izena emateko, 943 69 39 30 telefono zenbakira deitu behar da edo Larraulgo liburutegira azaldu, asteazkenean, 09:00etatik 13:00etara. Bi zerrendetan izena emateko azken eguna hilaren 27a da.

## I. Garcia

Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak zabalik du helduentzako eta eskola kanpoko ikastaroetan izena emateko zerrenda, bai Adunan eta bai Larraulen.

Helduentzako ikastaroegi dagokionez, eta Adunaren kasuan, mankomunitateak azaldu dutenez, hurrengo ikasturteari begira herritarren proposamenak jaso nahi dituzte, «aurreko ikasturtean antolatutako ikastaroen arrakasta ikusita». Horretarako 943 69 39 30 zenbakira deitu behar da. Dagoeneko bi martxan jarriko dira: gimnastika eta aerobik ikastaroa, eta pilates. Hauetan izena emateko epea hilaren 26an amaitzen da.

Eskola kanpoko lau ikastaro aurreikusten dituzte Adunan: euskal dantzak, antzerkia, pilota eta kirola ezagutzeko. Bertan izena emateko 943 69 39 30 zenbakira

## → Laburrak

### Paleta Txapelketaren azken partidak gaur

**TOLOSA** › Tolosa CFen Paleta Txapelketaren finalak gaur jokatu dira Berazubín, 18:30ean. 3. eta 4. posturako lehia Bengoa-Maizak eta Zabala-Aldazabalek jokatu dute; finala, Otermin-Goitiak eta Lontxo-Nazabalek.

### Pilota txapelketaren finalaurrekoak, bihar

**VILLABONA** › Aurtengo Santio jaietako pilota txapelketan, eskuz binakako senior mailako finalaurrekoak jokatu dira bihar, 18:00etan hasita. Lehenengo partidari Iñaki Lizaso eta Aranalde bikotea, Xabier Errasti eta Julen Urruzolaren aurka ariko dira. Bigarren partidari, Esnal eta Elola bikoteak Josu Iruarizaga eta Iker Geresta izango ditu aurkari.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena**

**Alkateen elkarrizketak** →

Mariano Lazkano ◊ Belauntzako alkatea

**«Nekazaritza indartzeko asmoa dugu»****Maier Ugartemendia** Belauntza

Zorrti urtez udalean egon arren, Mariano Lazkanori (Belauntza, 1951) ez zaio lanerako gogorik falta. Denok Bat taldeak lau zinegotzi izango ditu legealdi honetan, eta Belauntza Berreginezek hiru. Hala ere, elkarlanean ariko dira datozen lau urteetan.

**Zortzi urte pasa dituzu udalean eta orain beste lau urtetarako animatu zara.**

Azkeneko zortzi urteak alkateztan, zinegotzi eta alkateordetzan pasa ditut. Eta, orain beste lau urtetarako atera naiz. Ilusio handiarekin nago, urte batzuk badauzkagu, baina, herria laguntzeko gogoarekin dagoela ikusten da; eta horrek aldapa beti ere errazagoa egiten du.

**Hauteskundeetan herritarren babes jaso duzu.**

Hori ikusita poz handiagoa ematen du. Orain arte egindako lanarekin nonbait ados egongo zirela

ikusten da. Herritarrek oso ondo portatu dira; jendea gogoarekin dago eta gainera oso giro atsegina dago Belauntzan. Nirekin daudden laguntzaileak ere ilusio handiarekin daude, aurreko urteetako bidea egokia zela ikusi dute eta beraiek ere animatu dira, eta oso gustura gaude; herritarrentzat lan egiteko amorratzen. Gainera, beste taldearekin ere talde lanean ari gara eta erantzukizunak ere banatu egin ditugu. Ezinbestekoa da denok batera aritzea herritarrentzat lanean.

**Herriko giroari dagokionean aldaketa handia eman da, ezta?**

Bai. Hemen orain dela urte batzuk plenora etortzeak ere beldurra ematen zuen, eta orain plenora amaitutakoan denok batera joaten gara tragoa hartzea. Ni udalean sartu nintzenean nire helburua hau zen, eta kosta zaigu; baina, pena merezi izan du herria zer bidetan doan ikusita. Gu hemen jaiok eta haziak gara eta guk

hau maite dugu, eta lan asko egin behar da, baina, emaitzak ikusteak merezi izan du.

**Zer proiektu daukazue martxan?**

Plan orokorra hasita daukagu, eta gaur egun garrantzitsuen plan orokorra aurrera ateratzea da lehenbailehen. Herriko gazteak eta ez hain gazteak etxeak egiteko zain daude. Etxebizitzak egiteko lekua prestatu nahi dugu. Horrez gain, plaza ingurua txukundu nahi dugu, inguruari beste giro bat eman nahi diogu. Terrenoa badaukagu, eta aparkalekuak edo beste zenbait gauza jarri nahi ditugu. Momentu honetan gure asmoak hauek biak dira. Bestalde, baserritarrak eta baserriatik bizi direnak laguntza gutxi dituztela ikusten dugu. Horregatik, beraiei lagundu nahi diegu, bizimodua hortik ateratzen dutenei erosotasunak eman nahi dizkiegu.

**Nekazaritza bultzatuko duzue, bezaz?**



M. UGARTEMENDIA

Nekazaritzari indarra emateko asmoa dugu, hemen beti presentzia handia izan du nekazaritzak. Eta, azkeneko urteetan jendea gehiago lantegietara bideratu da. Horregatik, gazteei eta jarraitu nahi dutenei laguntzak eta erraztasunak eman nahi dizkiegu. Baina, gauzak pixkanaka-pixkanaka egin beharko dira, zeren udaletxeak badakigu diru aldetik nahiko larri ibiliko garela; orduan, iristen zaigun neurrian herria txukundu eta herri giroa jarri nahi dugu.

**Epe luzearako planak dira horiek?**

Badakizu denbora nola joaten den. Lau urte oso azkar pasa zaizkit, eta gauza dezente egin ditu-

gu. Esate baterako, Martintxo eraikina martxan jarriko dugu, igandean izango da inaugurazioa. San Josearako ireki nahi genuen, baina paper kontuengatik atzeratu egin da. Aitzakia bat gehiago da herritar guztiak elkartzeko. Eta, pisua ere moldatu dugu eta jada herritar batek eskatera egin du, eta bera sartuko da.

**Eta herriko enpresak zer egoeratan daude?**

Enpresa asko dauzkagu, tailer txiki asko. Denak errekaren ondoan egin ziren garai batean, eta gaur egun lizentziak lortzeko arazoak dituzte. Gai honekin ere bueltaka nabil, ea irteeraren bat emateko aukerarik dugun.

Arantxa Aburuza ◊

Adunako jarduneko alkatea

**«Ezin dugu denbora luzean jarraitu honela funtzionatzen»****M. Ugartemendia** Aduna

Adunan bizi duten egoera ez da erraza, eta horrela bizi du Arantxa Aburuzak (Aduna, 1975). Lehengo udala jardunean ari da lanean, eta udala hutsik utziko ez badute ere egoerari buruz hausnartu egin beharko dutela adierazi dio Aburuzak **TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZARI**.

**Zergatik gelditu zen zerrenda bat osatu gabe, Adunan?**

Zergatian eragin handia izan zuen Alderdien Legeak, ilegalizazioak. Eta, beste herritar batzuk ere arrazoi batzuek egin ziren aurkeztu. Ez zen herrikoek osutako zerrendarik aurkeztu, Alder-

di Popularrak bakarrik aurkeztu zen.

**Herritar talde batek boto zuria eskatu zuen.**

Izugarrizko parte hartzea izan zen; guk udaletxetik ez genuen artikulu bultzatu, baina herritarrek horren alde egin zuten, eta oso jende gutxi gelditu zen botatu gabe. Jendea boto zuria zer zen ondo azaldu behar izan zitzaion, baina jendeak zuzen botatu zuen. Alderdi Popularrak ere boto batzuk lortu zituen, baina ez zen nahikoa izan alkatetza eskuratzeako. Balioko boto guztietatik %5a behar baitzuten, eta ez zuten lortu.

**Orain zein da udalaren egoera?**



M. UGARTEMENDIA

Momentuan guk jardunean jarraitzen dugu, horrek eragiten dituen ondorioekin. Legearen artikulua osatu arabera, gehiengo absolutuko erabaki batzuk ezin dira hartu: maileguak, plan orokorra aldatzea... Orain horrela jarraitzeko asmoa dugu, uda bukatu arte. Diputazioarekin bilduko gara berriz, eta ondorio batzuetara iritsi beharko dugu. Hala ere, herriari jakinaraziko litzaiok zer erabaki hartzen den.

**Zein izango da hurrengo pausua?**

Lehenengo guk hobeto aztertu behar dugu, eta Diputazioarekin el-

kartu beharko dugu, lehengoarekin egon ginen, baina orain berriz egon beharko dugu. Ea zer egoera dagoen gestora osatzeko edo...

**Bestela, egunerokotasunean normaltasunez ari zarete lanean?**

Bai. Lehen martxan genituen proiektuak aurrera eramaten ari gara. Aspaldi plenorik ez dugu egin, baina egunerokotasunean lanean ari gara. Hala ere, ezin dugu denbora luzean jarraitu honela funtzionatzen.

**Eta orain zer proiektu daukazue martxan?**

Bat Zizurkildik Adunara dato-

ren bidea zabaltzea da. Hori egiteko proiektua aspaldi jarri genuen martxan, eta aurtien bukatuko dela pentsatzen dut; eta gero, Erriberan ere industrigune bat egitea aurreikusita dago, eta horren espedientearekin aurrera goaz. Hirigintzarekin ere bai. Ekonomia ahal dugun bezala kudeatu. Eta, langile gaiak landu. Horrez gain kultura aldetik, liburutegia, ikastaroak, udalekuak... bilerak egin eta antolatzen ari gara.

**Zer moduzko egoera ekonomikoa dauka udalak?**

Aurreko legealdian hasi ginenean baino zorpetze txikiagoa daukagu, baina, hala ere orain egongo diren gastu batzuk direla eta, agian, berriz larri xamar ibiliko gara. Eta, gainera, jardunean jarraitu behar badugu eta ezin badi-tugu kopuru batetik aurrerako maileguak eskatu, aztertu egin beharko da.

**Herritarren parte hartzea bultzatzen al duzue?**

Bai, aurrekontuak onartzerakoan aurrekontu parte hartzaileak egiten ditugu. Aurreko legealdian ere hala egin zen, eta urte bukaera arte jarraitu behar badugu ere horrela egingo dugu. Bilerak irekiak egiten dira, eta bertan azalpenak ematen zaizkie. Parte hartzea hor bultzatzen dugu.



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.M.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1.687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leitzaldea:** 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak  
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko  
eta Leitzaldeko  
beste 77 eragile

**Hitza-k  
Bai  
Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:**  
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketak, Anoeta, Areso, Baliarrain,  
Belauntza, Berastegi, Elduain, Herrialdea, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

**Agenda**

**DEIALDIAK**

■ **Leitza.** Atekabeltz gaztetxearen 6. urteurrena dela eta, gaur 22:30ean film laburren lehiaketa. Bihar berriz 11:00etan bizikleta marxa eta diana; 12:00etan II. Frontenis Txapelketako finala; 13:30ean topa gaztetxean bertan; 14:00etan bazkaria; 18:00etan poteoa; eta 23:00etan Soñadores Natos.  
■ **Tolosa.** Emendek-ek astelenean elkarteko batelaren banderak bedeinkatuko ditu 11:30ean San Blas basilizan.

**ANTZERKIA**

■ **Tolosa.** Taller Pepe Otal-en *Vamos que nos vamos* emaldia gaur, 19:00etan Euskal Herria plazan.  
■ **Villabona.** *Gartxot, Itzaltzuko bardoa* bihar, 22:30ean. Eurria eginez gero iraila arte atzeratuko dute.

**MUSIKA**

■ **Tolosa.** Bonbereneak Tolosako Switch, Inde Kitxen, Glaukoma Sound System eta Dolce Tangana taldeekin kaleratutako *Sputnik 11* diskoaren aurkezpen kontzertua bihar 22:30ean.

**KIROLA**

■ **Aduna.** VIII. Transernio Pilota Txapelketako finalerdiak izango dira bihar eta etzi 10:30etik aurrera.  
■ **Armezketak.** Joxean Tolosa Txapelketako pilota partidak. Gaur 22:00etan hiru partida izango dira; eta bihar 16:00etan eta 22:00etan izango dira partidak.

**JAIAK**

■ **Altzo.** San Inazio jaiak hilaren 29an hasiko badira ere, biharko aurrerapen moduko bat antolatu dute: 09:30ean umeen arteko eskalada; 11:30ean gazte eta helduen txanda eta umeen arteko toka txapelketa; 15:30ean mus txapelketa; 18:00etan pilota partidak; eta bukatzeko zahagi ardoa.  
■ **Villabona.** Santio jaiak igandean, hilak 24, hasiko dira (ikus egitaraua 5. orrialdeetan).

**Agurak**



**Manex jaio da!**  
Ongi etorri Manex!  
Zorionak Aitziber eta Eloiri.

**AGURRAK**  
943-65 56 95  
tolosaldean@hitza.info

●●●● agurak

**Farmaziak**

**GAUR**

■ **Tolosa.** Bronte, C. I. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.  
■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.  
■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

**BIHAR**

■ **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa kalea, 2. 943 65 46 10.  
■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.  
■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

**ETZI**

■ **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria kalea, 3. 943 67 09 15.  
■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.  
■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

**ETZIDAMU**

■ **Tolosa.** Morant, R. Zaballarreta, 1. 943 67 36 49.  
■ **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.

**EKO-TOLOSA**  
**FRUTATEGIAK** ondo pasa santioak!  
www.ekotolosa.com  
Tel.: 943 69 30 47 • Nagusia, 3 • Villabona

**JK Taberna**

- Gosariak • Plater konbinatuak
- Hanburgesak • Sandwichak
- Otartekoak

• Kale Nagusia 2 •  
• Villabona •

Irekita goizeko 9:00etatik

**MAPFRE**  
ASEGURAMOS SU CALIDAD DE VIDA

**Santioak ondo pasa!**

K/Berria, 15 • Villabona  
Tel.: 943 69 22 19

**ondo pasa!**

Ernioeba 3  
Billabona  
Tel.: 943 69 33 75

**DESACRISTAL**

**Autoarentzako kristalgintza**  
Muntaia, salmenta eta konponketak  
Autoa, furgoneta, kamioia nahiz autobusa

**Baimendutako laminek instalazioa**  
**SOLAR-CHECK**

Ibaiondo bailara, 17 - 8. pabilioia - N-1 errepeida - IRURA  
Tel.: 943 69 16 16 • Faxa: 943 69 12 47

**IBARRA**

195.000 €

**Promozio berria**

Sustatzailea:  
**Epergain**  
Eraikuntzak eta Promozioak, S.L.  
Eraikitzen du:  
**Aburuza**  
Eraikuntzak S.A

Kale Berria 46 • Villabona • 943 69 0297 • www.aburuza.com

**KONTUTAN HARTU BERE ADIMENA**

**EREMU HANDIETARAKO DISEINATU DUGU**

**TOLOSA MOTOR, S.A.**  
PEUGEOT KONZESIONARIOA  
San Esteban auzoa, 14-A • 20400 TOLOSA

Tel.: 943 650 337 / Faxa: 943 652 938  
tolosa@tolosa.redpeugeot.com

**P-508 SW BERRIA**

**Errausketa zerbitzu berria martxan!**  
Errausketa-labe prestatzekin.